



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Informe

Txostena

CIP12I017

Código de validación/*Balidazio kodea*

5L03330L1O041O3303BW



SOLICITANTE/ESKATZAILEA

Nombre y apellidos/ <i>Izen-ab</i>		DNI/ <i>NAN</i>	
Nagore Domínguez Juez			
Domicilio/ <i>Helbidea</i>	CP/ <i>PK</i>	Municipio/ <i>Udalerría</i>	Tfno./ <i>Tfnoa</i>

PROPUESTA /PROPOSAMENA

CARTA ERMUA CIUDAD EDUCADORA GUTUNA ERMUA HIRI HEZITZAILEA

Ciudad = personas+entorno+relaciones

Hiria = pertsonak+ingurunea+harremanak

COMUNICACIÓN E INFORMACIÓN ACCESIBLE

KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA ESKURAGARRIA

La ciudad promoverá una comunicación efectiva y el intercambio óptimo de información, utilizando un lenguaje llano y soportes y canales accesibles. Así mismo, velará por la accesibilidad a la información y propiciará que haya canales de comunicación bidireccionales entre el ayuntamiento y la ciudadanía.

Hiriak komunikazio eraginkorra eta informazioa erraz trukatzeko modua bultzatuko ditu, hizkuntza erraza eta euskarri eta bide eskuragarriak erabiliz. Halaber, informazioa eskuragai egon dadin ahaleginduko da eta Udalaren eta herritarren artean bi noranzkoetako komunikabideak egon daitezela eragingo du.

SALUD COMUNITARIA

KOMUNITATEAREN OSASUNA

La ciudad facilitará el bienestar de las personas en lo referente a su salud física, mental, emocional y relacional. Así mismo, promoverá acciones, espacios y entornos saludables.

Hiriak pertsonen ongizatea ahalbidetuko du, osasun fisiko, mental, emozio eta harremanei dagokienean. Halaber, ekintza, espazio eta ingurune osasungarriak eskaintzen ahaleginduko da.

COMUNIDAD PARTICIPATIVA Y CÍVICA

KOMUNITATE PARTE-HARTZAILE ETA GIZABIDEZKOA

La ciudad fomentará la participación de la ciudadanía de forma corresponsable, para intervenir y contribuir en el desarrollo de la ciudad. Así mismo, propiciará un comportamiento ciudadano responsable contribuyendo así al funcionamiento correcto de la sociedad y al bienestar del resto de la comunidad.

Hiriak hiritarrek erantzukizunkidetasunez parte hartzea sustatuko du, guztiek hiriaren garapenean eskuhartu eta lagun dezaten. Halaber gizabidezko jokabideak bultzatuko ditu, gizartearen funtzionamendu zuzenari eta gainerako beste hiritar guztien ongizateari lagunduz.

COMUNIDAD INTEGRADORA E IGUALITARIA

KOMUNITATE INTEGRATZAILE ETA BERDINTASUNEZKOA

La ciudad facilitará la creación y desarrollo de espacios de encuentro y reflexión donde las personas que la habitan, los agentes culturales y el asociacionismo sean agentes activos en la construcción de una ciudadanía organizada, autónoma y solidaria, capaz de convivir en la diferencia y solucionar pacíficamente sus conflictos.

Hiriak topaguneak eta hausnarketarako lekuak sortzen eta garatzen lagunduko du, bertan bizi diren pertsonak, kultur eragileak eta elkarteak eragile aktibo izan daitezen hiritar antolatu, autonomiadun eta solidarioak sortzeko, ezberdintasunean elkarrekin bizi eta gatazkak bakean konpontzeko gai direnak.

IDENTIDAD COMUNITARIA

KOMUNITATE-NORTASUNA

La ciudad promoverá la conciencia colectiva frente a la individual apoyándose tanto en el conocimiento y respeto a sus raíces y tradiciones como en la tolerancia y respeto a la pluralidad, con objeto de propiciar vínculos ciudadanos que promuevan una identidad comunitaria inclusiva y un sentimiento de pertenencia a la misma.

Hiriak kontzientzia kolektiboa bultzatuko du, ez gizabanakoarena, bere sustraiak eta tradizioak ezagutu eta errespetatuz, eta pluraltasunarekiko tolerantziaz eta errespetuz aldi berean, komunitate-nortasun barneratzaile eta bertakoa izatearen sentimendua sustatuko duten hiritar-loturak sortzeko.

APRENDIZAJE COMUNITARIO

IKASKUNTZA KOMUNITARIOA

La ciudad velará por la promoción de espacios y el intercambio de experiencias de vida que favorezcan el empoderamiento personal y comunitario, trabajando a su vez en la generación de una conciencia ciudadana que garantice el retorno del conocimiento adquirido.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Informe

Txostena

CIP12I017

Código de validación/*Balidazio kodea*

5L03330L1O041O3303BW



Hiriak bizitza-espazioak sustatzen eta bizitza-esperientziak trukatzeko lagunduko du, pertsonaren eta komunitatearen jabekuntza eragiteko, eskuratutako ezagutza bihurtzea bermatuko duen hiritar-kontzientzia sortzen ahaleginduz.

LA COMUNIDAD SOSTENIBLE

KOMUNITATE JASANGARRIA IRAUNKORRA

La ciudad velará por un futuro sustentable, tanto económico, social y medioambiental, que permita satisfacer las necesidades actuales sin poner en riesgo las posibilidades de las siguientes generaciones, teniendo en cuenta el ecosistema local y la gestión responsable y eficaz de sus recursos, promoviendo estilos de vida saludables y de calidad.

Hiria etorkizun sostengagarri bat lortzen ahaleginduko da, ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-mailan, hurrengo belaunaldien aukerak arriskuan jarri gabe egungo beharrei erantzun ahal izateko, tokiko ekosistema eta baliabideen kudeaketa arduratsua eta eraginkorra kontutan izanik, bizitza-eredu osasungarriak eta kalitatezkoak bultzatuz.

EL DESARROLLO LOCAL

TOKI GARAPENA

La ciudad facilitará el emprendizaje, y la capacitación profesional de su ciudadanía para garantizar su inclusión y permanencia en el ámbito laboral. Así mismo, promoverá la innovación, la diversificación y el desarrollo tecnológico para favorecer el crecimiento y consolidación de su tejido empresarial. Además, impulsará la colaboración de su tejido empresarial y educativo favoreciendo el intercambio de conocimiento y aportando valor a la comunidad.

Hiriak ekintzailatza eta bertako hiritarren lanbide-prestakuntza bultzatuko ditu, guztiak lan-munduratzea eta bertan mantentzea bermatzeko. Halaber, berrikuntza, dibertsifikazioa eta garapen teknologikoa sustatuko ditu, bere enpresa-ehuna haztea eta finkatzea errazagoa izan dadin. Gainera, bertako enpresa- eta hezkuntza-ehunen lankidetzak eragingo du, ezagutzak elkarrekin trukatzeko bide emanez eta komunitateari balioa gehituz.